



Ateak Ireki Dantzan / Dancing



Eka. 25 - Eka. 26 2024

Kod. K04-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 25 - Eka. 26 2024

Kokalekua

Igartza Jauregian eta Kiroldegian

Hizkuntzak

Ingelesa Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Euskal Komunitate globala egituratzeko diasporako euskal gazteak euskal kulturara hurbildu eta euskal gazteekin harreman sarea josteko tresna bikainak dira euskal kultura eta euskal dantza. Euskal Kulturaren komunitatea egituratzeko eta euskal kulturara hurbiltzeko tresna eraginkorra da euskal dantza, baina oraindik indartsuago eta eraginkorragoa da diasporako euskaldunen artean, beraz, bi komunitateak sartzeko eta euskal kultura sustatzeko aukera bikaina eskaintzen du gorputz hizkuntzak.

Hain zuzen, Euskal Komunitate sendo bat behar dugulako, munduko plazan dagoena, abiatu zen iaz Ateak Ireki egitasmoa (www.ateakireki.eus). Diasporako gazteen eta Euskal Herriko gazteen arteko harremanak sendotzen laguntzea du helburu programa honek. 2023an euskal jatorria duten 37 gazte ekarri ziren Goierriara eta hiru asteko egonaldia egin zuten hango familiekin. Maizpide Euskaltegiarekin batera euskara eta euskal kultura ikasteko ikastaro berezi batzuk antolatu ziren.

Ameriketako Estatu Batuetatik etorritako gazteek euskal dantza eskolen eskaintza indartzeko interesa agertu zuten. Izan ere haientzat euskal dantza beraien euskal nortasunaren adierazlerik garrantzitsuenetakoa da. Eskaera horri, eta dantzak gazteen formazioan dituen onurak eta euskal kulturara sartzeko eskaintzen dituen aukerak aintzat hartuta antolatuko da Uda Ikastaro hau.

Euskal Dantzaren irakasleen etengabeko formakuntzan aritzen den Dantzan Ikasi programarekin batera antolatuko da Ikastaroa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa da Dantzan Ikasi, 15 urteko ibilbidea duena alor horretan eta horren bidez Euskal Herriko dantzariak erakarriko dira ikastarora, era horretan diasporako eta bertako gazteak Ikastaroa batera egin eta harreman sarea eraikitzeko aukera eskainiz.

Ikastaroan alde teorikoa eta alde praktikoa jorratuko dira eta ingelesa eta euskara erabiliko dira nagusiki. Euskal dantzaren alorreko irakasle adituek eskainiko dituzte saio nagusiak eta dantzak euskal festa baten testuinguru erritualean bizitzeko aukera ere emango die.

Helburuak

Euskal kultura eta euskal dantzaren bidez munduko euskal komunitatea sendotzen laguntzea.

Euskal dantzaren ezagutza teoriko eta praktikoa sakontzeko aukera ematea.

Euskal dantzak gizarte antolaketan, euskal kulturaren eta komunitatearen kohesioan jokatzen duen funtzioa agerian jartzea.

Gizarte aitzinamendu eta hobekuntzarako gorputz hizkuntzaren onurak aplikatzea.

Diasporako euskal gazteen nortasuna sendotzen laguntzea.

Programa

2024-06-25

08:45 - 09:00	Registration
09:15 - 09:25	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Eva Ferreira Garcia UPV/EHU - Errektore Andrea Eider Mendoza Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputatu Nagusi andrea Leire Artola Ugalde Beasaingo Udaletxea - Alkate andrea
09:30 - 10:00	“Euskal Dantza eta Euskal Nortasunaren Garapena Diasporan. Basque Dance and Development of Basque Identity in the Diaspora” Iñaki Goirizelaia Ordorika UPV/EHU - Ohorezko lankidea
10:00 - 11:00	“Aureskua eta soka-dantza, herri baten soka (Ingelesez)” Oier Araolaza Arrieta Dantzan.eus - Dantzaria
11:00 - 11:30	kafea
11:30 - 13:30	“Euskal festetako dantzaldietarako dantza ikastaldi praktikoa I: banangoa, jotak eta dantza-jauziak” JOSU Garate Suinaga Dantzerti - Dantzaria
13:50 - 14:00	Sintesia
16:00 - 18:00	“Goierriko eta Gipuzkoako dantza-sistema eta bere agerpena auresku eta soka-dantzetan. Saio teoriko praktikoa.” Izaskun Salazar Aurtzaka Dantza Taldea - Dantzaria Mikel Sarriegi Aurtzaka Dantza Taldea - Dantzaria

2024-06-26

09:30 - 10:30	“Ezpata-dantzak: Europako sistema batean euskal berezitasuna.” Oier Araolaza Arrieta Dantzan.eus - Dantzaria
10:30 - 11:00	kafea
11:00 - 13:00	“Euskal festetako dantzaldietarako dantza ikastaldi praktikoa II: banangoa, jotak eta dantza-jauziak.” JOSU Garate Suinaga Dantzerti - Dantzaria
13:50 - 14:00	Sintesia
16:00 - 17:00	“Igartzako ezpata-dantzaren azalpen eta ikastaldi praktikoa” Izaskun Salazar Aurtzaka Dantza Taldea - Dantzaria Mikel Sarriegi Aurtzaka Dantza Taldea - Dantzaria

18:00 - 20:00

Erromeria

Zuzendaritza



Iñaki Goirizelaia Ordorika

UPV/EHU, Ingeniería de Comunicaciones


Ingeniaritza Telematikokoan katedraduna da UPV/EHU. Errektorea izan zen (2009-2017), eta lehenago, Unibertsitate-Enpresako errektoreordea (1998-2000), Akademia Antolakuntza arloaren errektoreordea (2004) eta Bizkaiko Campuseko errektoreordea (2005-2008). 1984an eta 1985ean Visiting Fellow Kaliforniako Stanford Research Institutuan (SRI). 2004an sei hilabetez irakasle bisitari Massachusetts-eko Institutu Teknologikoko MediaLab laborategian. 2017an, Boise State University-ko (BSU) Eloise Garmendia Bieter katedraz jabetu zen. Bere ikerketa-ibilbidean hiru lerro hauek landu ditu: adimen artifiziala, ikusmen artifiziala eta telekomunikazio-sareetako segurtasuna. Orain ingeniari-za telematikokoaren arloko I2T ikertaldeko kidea da. 1999an “Programazioaren oinarriak” testuliburuaren egilea da, eta 2021ean “Sareetan zehar dantzan Java erabiliz” liburuaren egilekidea. Bestalde, diasporako euskal balioei buruzko hausnarketa gauzatzen duen “Bai, bagara!” dokumentalaren sortzailea eta giduigilea da, eta dantzari buruzko “Lur hau gurea” dokumentalaren sortzailea. Gaur egun, PuntuEus fundazioaren presidentea eta sortzaileetako bat da, eta Jakiunde izeneko zientzia, arte eta letren akademiako ohorezko jakituna da.

Irakasleak



Oier Araolaza Arrieta

Oier Araolaza Arrieta (Elgoibar, 1972) dantzaria da. Eibarko Kezka eta Donostiako Argia dantzari taldeetan aritzen da. Urbeltzen zuzendaritzapean Argiaren Alakiketan (1991), Kondharian (1997), Axuri Beltza (2008) eta Martin Zalakain (2017) ikuskizunetan aritu da dantzari. Dantzan.eus webgunearen sortzailea eta editorea da. Informazio Zientzietan (EHU, 1995) eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua (EHU, 2000), Musikologian egin du masterra (EHU, 2008), Artearen Historian Ikasketa Aurreratuen Agiria (EHU, 2010), eta doktore tesia Gizarte Komunikazioan (EHU, 2020) euskal dantza eta generoa ikertuz Mikel Laboa katedraren babesean. Euskal dantza irakasle izan da Dantzertin (2017) eta EHUn Euskal Dantzari buruzko ikasketetan (2016-2017). Euskal dantza hainbat artikulu idatzi ditu Argia, Berria eta Dantzan-en, eta hiru liburu argitaratu ditu: Gregorio Santa Cruz dantza-maisua (Ego-Ibarra, 1998), Euskal Dantza (Etxepare, 2012) eta Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan (UEU, 2020). 2012tik Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseiluko kidea da.



JOSU Garate Suinaga

Arkitekto dantzaria edo dantzari arkitektoa -eguraldiaren arabera- eta uzten didatenean musikaria Eibarko Kezka Dantza Taldean. Azkenengo urteetan dantza maisu nagusi, gaztetxo eta haurrentzako, behar den leku eta ordutan, molde tradizionalako dantzetan. Argia Dantza Taldeko dantzaria J. A. Urbeltz antropologo eta folkloristaren gidaritzapean 1997a geroztik. Hamaika ikastarotan osotua dantza tradizionalaren errepertorioa batzutan zein dantza heziketaren pedagogia landuaz bestetan (Ikerfolk, Dantzan Ikasi, AIKO Taldea,...).



Izaskun Salazar



Mikel Sarriegi

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-06-25 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR
Donostia Kultura	-	71,00 EUR

Kokalekua

Igartza Jauregian eta Kiroldegian

Beasain Bidea, 20216 Beasain, Gipuzkoa/Igartza Oleta Kalea, 3, 20200 Beasain, Gipuzkoa
Gipuzkoa